

## Bertsolaritza ta kultura

Ego Ameriketara eleberriak indartsu azaltzen ba-zaizkigu, beren ao-literatura aberatsa jo dutelako da batik-bat. Europako nobelagintza utzi eta beren eletek jaorrera jo dutelako.

Gure artean ere joera ori lege berritatz eman daukagu, onragarriko bidetzat. Or daude lekuko poesigintzan eta senikarion aurkezten ebaki diran bide berriak.

Gure kultura sakonki aztertzeotan, euskal-antropologia bat egin bearra daukagu. Ta orretarako errege-bidea ao-literatura degu: ipuaki, teatroa, poesigintza. Emen nabarmentzen zaizkigu gure pensiera, gure sikologia, gure estetika. Gure erri-nortasunaren doarik berezianak.

Bertsolaritza ar dezagun. Onek antropologiari buruz ezezik, gaurko poesiaren egin-moldeeri buruz ere erakuspen berezia du.

Batetik, bizirik dago oraindik gure artean eredu bikain ori. Or ditugu dozena ta erdi bertsolari ondo osotak. Eta auetatik lau, belaunaldi bateko bertsolariak iritzi ditezten goieneko mailakoak. Gazteagoak ere leiatu dabiltz beren txapeldunak lortu naian.

Bestalde, gaurko teknikaren eskakizunetara zerbaiz sartu dira gure bertsolariak. Itzal aundiko presentzia dute naiz aretoetan, naiz irratan, naiz elizan. Gainditu zituzten garai bateko feri ta ostatu giroak. Eta artu dituzte jaialdiak egiteko era berriak. Entzuleen agiriko iritziak kontuan izaten da gaiak ematean; ta jardunaldiak zortzotzak, laburrak eta era askotakoak egin oi dira, gaurko giza-giroak eskatzen duan eran.

Errian beti apio ona du kulturak. Ta literatura idatzian datozen bide-galtze batzuk ao-literaturak zuzentzen ditu askotan. Berdin bertsolaritzak poesi-mailan ere: bereak ditu alako giza-neurria, jatorrasuna, legedi zentzuduna, izkuntza bizia, errealeismo aukerakoa ta abar.

Azkenik, gaifera oso berea du bertsolaritzak, gizarte-giro osasuntsua. Askorentzat egiten dan poesi umilla. Erri artean bizi diranen intuizio sakona. Ideologiaz mugatua, bai; bainan giza-jakinduriaren egun-argi antziñakoa.

# Gogoeta Iturri

Nola neur daiteke segurki gizar-mota baten arrakasta edo lur-jotzea? Zein gizarte-kera da helburu bilagarria, eta zein berriz galbide baztergarria?

Arazoa ideien mailan aztertuz gero, denek haintzakotzat hartuko luketen irizpide bakunik ez dagoela gauza nabarmena da. Budista bati, esate baterako, kaltegarri zaizkio teknika bera eta teknikatasunari datzekon lilurak: munduko izakiei itsatsiago —dio berak— eta ezipidean galduago, eta nirvana-rako helburu bakarretik urrunago. Materialista bati, alderantziz, nirvana-ren ipuin zoro horietatik gizonari urrunago, teknika-mailan herri ta aurrerago, eta bertago ere izango dira, edo izan daitezke bederen, gizarte bidezkoa eta gizon zoriontsua.

Eztabaida bera genuke gizarte baten egokitasunaren ikurrak edo seinaleak hautatzekoan. Batek aisia, erosotasuna, konforra, hartuko luke gidaritzat; eta USA edo Suiza «aurreratua» daudela esango luke Portugal edo Grezia baino. Baina beste batek, zinezko kristau batek, emen dezagun, aurrerago aurkituko litzuke («aurrerago» hemen Jesukristogandik bertago irakurri behar da) katakubetako kristau-multzto zapalduak, gaurko Euro-

pako burges-talde indartsu dotoreak baino. Europa aurreratu egin dela azken urteotan esango du materialista batek; baina ilpirtu-zale batek zalantzan jarriko du hori, edoarras ukatuko behar bada.

Badirudi, horretara, zail dela neurkin bakar bat hautatzen.

Bat balegokeala iruditzen zaizkio halere; eta bestetan gogozia dut, nik uste: nor bere buruz beste egintzaren neurketak eman dezakeana, suizidio-kopuruaren bidez ikas daitekeana. Bere burua hiltzen duenak, benetan gaitzesten du bere gizarte, eta bizitzeari ekiteko arrazoinik ageri ez zaioela zinez erakusten. Gizarte batetako lagun guztiek halako batez beren burua hilko balute (eta hau zenbait lekutan gertatua da, etnografiariek azaldu dutenez) gizarte-mota hori bertakoei bederen bizi-ezina zitzaizela agertuko litzake nabarmen. Gizon batek bere buruz beste egitea baino arbuio sakonagorik ez bait dago.

Urte askotan barrena Suezia izan da, suizidio-kopuru kontu horretan, munduko txapelduna; eta gertakari honek bai filosofoi, bai horren filosofo ez garen askori ere, mila gogoeta eragin digu. Zergatik Suezia oparoa txapeldun? Dominique Birmann-ek berriki azaltzen zenez, hain zuzen, teknika-aurrerapenak gorago eta hedatu-

ago, eta herriaren ametsak ere ausartago eta handigurakoago egin dira. Volkswagen-aren amets zaharri, horrela, Volvo-144 eta Audi-100-aren ametsa nagusitu omen zai; eta bakantzetan Mallorcarra joan-nahiari, Ceylan, Kenya eta Gambia-ra joan-nahia. Etxe-erakierari buruz, era berean, guztiz konofr handirik ez lukean etxe berria ez omen litzake inolaz ere Suezian salduko. Hots, gaurko Suezia horretan, urtero 22 suizidio gertatzen dira (100.000 biztanletako, jakina); alegia, munduan kopururik gorenetakoa bat.

Hots, hauxe izan da askoren txaskoa: ez dela jadanik Suezia sail hits horretan txapeldun, Hungria baizik. Budapest-eko Estadistika-Bulego ofizialak berak aitortu duenez, 1971-an 35 suizidio gertatu dira Hungrian (100.000 biztanle); alegia, 3.000 denera erresuma osoan. Eta zifrak gora omen doaz bildurtzeko moduan.

Datook eman dituen «Kostars» aldizkariak («Le Monde»-k iturritzat erabiliak) gertakaria azal dezaketan arrazoin batzuk eman ditu. Baina hauek usteak dira, ez litzazkieke denei laketa izango ene ustez; eta ez ditut hemen aipatuko. Nahiago dut irakurlea berak, zifra eta dato gorri horien arabera, bere buruz, nik bezala, gogoeta apur bat egitea.

LARRSORO

## Utikan amerikanoak

Mundu honetako aberats, jaun-txo eta indardun zeratenok, Vietnam aldean larri zabiltzate la entzun dut. Behin eta berriro, ipar aldeko vietnamdarrek bururki ekin diote, gogor ekin ere; hego aldea hurbilduz, gero bereak eta bi eragin omen dituzte. Zuek, bildurak eraginda, atzera egin ote duen susmoa ere zabaldu da gure artean.

Vietnam herriskak, Robert L. Heilbroner idazleak ditonez, bere jokabide iraultzaileak, atsenden unerik ez dizue uzten. Gerla luzaroko doa, eta zuek, amerikanoak, aspertzen hasita zeratelakoa gaudete. Zer egin?

Gerra bidetik abiatu zinatene, Asia aldeko iraultza giroa desegin erazteko asmoaz, noski, lurralde horrek mundu bizitzan eta etorkizunari begira garrantzi handikoa zela oharturik. Ez zenuten bat batean zuten gustoko jende eta gobernurik ezartzerik lortu, asiarek beste biderik aukeratu zuten non-bait. Gerla sortu zen sortu, eta indarkeriak ez ditu gauzak behar bezala konpondu.

Geroztik, vietnamdarrek egurkadarik jasan dute. Izan ere zuten burruka ez da jauntxo batzuen aurka zuzendutakoa, herriaren kontra bete-betean baizik. Horregatik, Vietnam herria zuen aurka dago, ipar aldekoa bete-betean eta zuzenean, eta hego aldekoak adiskide ahal dituzte? Hego aldean ere jauntxo zapaltzaileak zuten kideko eta lagun direlarik, herriak ez ahal zaituzte etsaitzat jotzen? Zuen burruka zelakoa da, herriaren aldekoa ez bada? Zuen akolito izan ditezkeen

jauntxo batzuen agintea lortzeko?

Badira zuen artean hildakoak, egun batean etxetik irten eta orain behin ere itzuliko ez direnak. Zaurituak, berriz, dakidenez, kontu ezin ahala. Zuen agintariak ere, gerla dela eta patxada galdu duela dirudi. Eguraldia aldatu zai egon da, hegazkinez baliaturik herria indarkeriaz zapaltzeko. Baina, lehenago aipatu dedan idazlearen esana googan hartuko dizue noski: «Aberkide iraultzaileen indarra zapaltzea oso zaila da». Vietnamgo gerlaz mintzatuz esaten digu bere «Entre capitalismo y socialismo» liburuan, 63 garren orrialdean. Hots, idazle horren iritzi Vietnam ez dizue nolanhiz zapaltzerik izango.

Nik gai honetaz zerbaiz gehiago esan ahal dezaket? Zuek, herritar baketiari zeratenok gerlaz leporaino zaudetela badakit. Horregatik, agintariak, kapitalistek, inperialistek eman ez duten pausoa zuten esku-tan dago. Arren, ez gehiago bonbarik, ez gehiago indarkeriarik.

Vietnamgo arazoa, ordea, zelan konpondu?

Dirudienez, ez da hain erraza. Parisen, bilera zaratsuek ez dute ondoren onik ekarri. Bakearen usorik ez da Paris eta Vietnamera iritxi. Noiz arte?

Nere ezjakinean, gauza bat argi ikusten dut: zuek amerikanoak, etxe barruko gorabeherak zuek konpontzen ahalgintzen zerate, ez dizue zuten etxe barruan nehoen

sudur arrotzik ikusi nahi. Vietnam ere beste herri bat duzue, herri bezala, bere nortasunari dagokionez, arlo denetan bere etorkizunaren bidea aukeratzeko eskubide osoa behar duen herria. Horregatik Amerika amerikarentzat denez gero, bedi Vietnam vietnamdarren-tzat. Ez da lojika zaila eta ulergaitza.

Horregatik, amerikanoak, lehen-bailehen har zazue bueltako bileta, oraindik garaz zaudete eta. Vietnamgoak alde batera utzirik has zaitzekete etxe barruko arazoein, zer konpondu premiarik izango dizue eta.

Mikel Ugalde

## ARGIA

Zuzenadaria:

MIREN JONE AZURZA  
ARISTEGIETA

Nafarroa-Kantauri eta Aragoiko Kaputxinoak argitaratua (Kale Nagusia, 50-1.º Burlada-Pamplona).  
Donostian: Okendo, 22  
Tel. 42 66 66

ARPIDE SARIA:

Barruan	300 pezeta
Korreo batasunetako errietan	350 pezeta
Azterrietako beste errietan	370 pezeta
Aidez	Aurrez galdetu

Salmetan (ale bakoitza) 7 pezeta

## Gogozko erio gozoa

Eguneroak ditenez auzi bat izan da Frantziari oraindik orain: ifolaz ere sendatzerik ez zegoen bere emaztearen eriotza «aurreratu» zuten senarraren auzia. Zoritxarrez ez da ori egin duen lehenengoa. Egunetik egunera ugaltzen ari dira onelako gertaerak.

Itz gutxitan eta lehor emandako berria zan. Alde zuten lege-gizonak, eriotza gozatu besterik ez ziola egin bere emazteari frogatu nahi izan zuten. Auzi-mahaioek erregabebetatu zuten bere emazte «erail» zuten senarra. Auzitegira ikusmira joandako jendeek txaloka erantzun zioten epailleen erabakia.

Ez noa ez inor eta ez ezer epaitzera, ez bai ditut gertaeraren zehaztasunak ezagutzen. Ez dut uste ikusmira joan zan jendeak ere ezer aundirik esango duenik. Antzerki bat ikustera bezala joan ohi dira auzitegietara zer gertatzen dan jakiteko. Oraindu beharrik gabe eta patxadan eserita ikusten dan festa da gaifera.

Lege-gizonak, berriz, bere egitekoa bete zuten. Berak aldeztan eta babesten duen gizona erregabea dela azaldu behar du. Eta ortarako biderik egokiena artu.

Bestalde sendatzerik ez daukan maitea zertaratu ditekian inorik ez daki. Oker aundiagoak gerta dakizkioke. Ez noa ez onartu eta ez gaitzestera.

Baifia onetxek ikaratsen nau: eutanasia edo nahitako erio gozoa legetan onartu ez bada ere, jendearan ohituretan onartua dagoela. Orregatik txalo jotzen dio «il-beharrari» etorri zaijon gaioxa «garbitzerari». Onela erail badu ere, edo eriotza aurreratu badio ere, ez dago auzigairik, eriotza ori goxatu diola frogatzen badu.

Berririo diot ez noa auzitegiko

erabakia eztabaidatzera, ez bait du gertaera behar bezala ezagutzen.

Baifia txunditurik uzten nau jendearen jokabideak. Gero eta onartuago dauka. Baifia ikus dezagun: noiztik gaude ziur ez dela sendatuko? Nork jakin dezake? Gero eta mirari aundiagoak egiten dituzte gaur sendagaiak. Gaur airi beldur-garria dan minbizia bera ere bihar erraz senda ditekete. Nork erabaki dezake gaixo gabe ez daukala sendatzerik?

Eta jakifia danok daukagu lehen-txeago edo geroxeago el beharra. Zein dago batere gaitzik gabe. Nork dauka gaitz guztiak sendatzeokoak? Zer tarte dago sendatuko dan gaitzetik sendatuko ez danera? Txikia, noski.

Esango al diegu elbarri eta iñuxente guztiei berorien itzailleei txalo jotzeko prest den jenderik bada? Badirudi Hitler-ek gerra irabazi duela.

Eta ez dut bere onetatik aterratzen auzia. Ez dago erdibiderik. Edo biziarren alde jartzen gera zorrozt eta tinko, bizi ori gordetzeko eta luzatzeko egin beharrezko guztiak egina ez bestela ez dugu jakingo non mugarrira sar, noiz eriotza aurreratu, erioa goxatzeo eta gaioxa ene batetik bestera badijoalaren aitzakiz.

Edo badator gaioxa, beldurrak aidean jarriko dan eguna, sendagilea edo etxekoren bat ondortzen zaijon bezain azkar. Edo gaioxa berak, artu behar duena artuz, bere buruari erio gozo ori opa dezaiokean eguna...

«Giza-iltzaillea» txalotu zuten olek ez ote zuten beren eriotz-epala txalotu?

IRAOLA